

Proiektuaren deskribapena

Betidanik izan dugu gustuko jostun munduarekin zer ikusia duen oro. Beraz, RTVEk proposatutako lehiaketa batera joan (Maestros de la Costura) eta gutariko batek hau irabazi ondoren, denda bat irekitzea erabaki genuen. Txikitatik ikusi izan ditugu jantzi desberdinak. Halere, baliteke pertsona bati jantzi bat asko gustatzea baina hau probatzerako orduan, ez egotea berak behar duen neurria. Horrez gain, ingurumenari buruzko zenbait kezka sortu zitzaizkigun gaur egungo egoera ikusita.



Beraz, hau guztia kontuan hartuta, ideia bat sortu genuen: arropa zaharra berri bilakatzea, guztiari bezala, beste aukera bat emanez. Are gehiago, gure helburua arropa berri hori pertsonalizatua izatea da; hau da, beharrezkoa izango balitz, bezero bakoitzaren neurriak hartzea eta honek nahi duen arropa hautatzea (modelo batzuen barruan), bezeroarekin konfidantza eta erlazio onuragarria sortzeko.